




**NAFARROAN ANTZERKIA
SUSTATZEKO PLANA**

AURKEZPENA



Nafarroako antzerkiaren arloaren **errealitatea eraldatzeko** nahiari erantzuten dio Nafarroako Antzerkia Sustatzeko Planak. Hain zuzen, antzerkia **lehen mailako kultura egintzat** hartzera eramango gaituzten **ekintza positibo** batzuen bidez egitea da asmoa.

ABIAPUNTUA



ANTZERKIAREN TALDE MOTOR bat martxan jartzea, arloan kezka eragiten duten GAIAK IDENTIFIKATZEN dituen:

- Egoeraren **DIAGNOSTIKOA/MAPAKETA**.
- **MERKATUA**: baliabide ekonomikoak eta azpiegiturak, merkaturatzea.
- **AGENTEAK**: sortzaileak, taldeak, programatzaileak, kudeatzaileak, erakusteko guneak eta Administrazioako teknikariak.
- **HARTZAILEAK**: publikoa, ikus-entzuleak.

ANTZERKIAREN TALDE MOTORRA

MISIOA

- Arloa eta errealitatea ezagutzea.
- Partikularra gainditu eta ekintza positiboekin amaitzea.
- Gogoetabide komun eta positibo bat bilatzea.
- Aurrekontu mugimenduak.

IKUSPEGIA

- Prozesu irekia. Bertan gogoetarako kontuak planteatzen dira, arloaren egoera ezagutzera bideratutakoak, ekintza positibo zehatz eta jakinak bultzatzeko.

DIAGNOSTIKOA

Gune asko daude baina gutxiegi erabiliak; programatzaileen artean ez dago koordinaziorik; merkatua mugatua da; sormenezkoak ez diren lanetan aritzen diren agente sortaileak; **arloan profesional zatikatua** eta oso gutxi kohesionatua; proiektuak sortu eta garatzeko denborarik ez dago; **programatzaileengana iritsi ezin ahal izatea**; programazio kontserbatzailea; kudeatzaileen prestakuntza gabeziak; elkarrekiko harreman eza; **agenteak elkartzeko gunerik ez dago**; antzerkiak ez du prestigio sozialik; bertako ekoizpenari balio gutxiago ematen zaio.

METODOLOGIA

Prozesu irekia eta parte-hartzean oinarritutakoa

Deialdi irekia hauei:

- Artistak, sortzaileak, taldeak, profesionalak eta zaleak.
- Arlo publiko eta pribatuko kultura kudeatzaileak.
- Gune eszenikoen kudeatzaileak.
- Kulturako zinegotziak eta kargudun publikoak.
- Kulturako eta arteko fundazioen eta elkarten ordezkariak.

SAIOEN EGUTEGIA

2016ko urriaren 10ean

Antzerkiaren Talde Motorra sortzea

Antzerkia Sustatzeko Plana

2016ko urriaren 19a:

MAPIFIKATZEA ETA ANTZERKI PROGRAMAZIOA

2016ko urriaren 24a:

ARLOKO AGENTEAK ETA SORMENA

2016ko urriaren 26a:

MERKATUA ETA LAN EGITEKO BESTE MODU
BATZUK


PROZESUA

Gogoeta partikularra

Nahiak eta xedeak adieraztea

Haiek lortzeko ekintzak

Ekintzak lehenestea



ANTZERKIA SUSTATZEKO EKINTZAK, ZERTARAKO?

- Arloari onura ekarriko dioten ekintzak **planifikatzeko**.
- Arloa **sustatzeko**, eta, bereziki, **profesionalak**.
- **Prestakuntza** hobetzeko, bai sortzaileena, bai kudeatzaileena ere.
- **Agenteen arteko elkarlanerako** bide hobeak finkatzeko.
- Proiektuen **kudeaketa hobetzeko**, maila artistikoan eta bai ekoizpenari, marketinari, merkaturatzeari, laguntzei... dagokienez ere.
- Agente desberdinen lana **koordinatzeko**.
- **Lanerako nitxo berriak** bilatzeko.



**ANTZERKIA,
EZINBESTEKO
KULTURA EGINTZA**

EKINTZA POSITIBOAK

Ekintzak zehaztu dira laneko lau esparrutarako

- INSTITUZIONALA
- ZEHARKAKOA
- PRESTAKUNTZA
- MERKATUA

ESPARRU INSTITUZIONALA



Nafarroako Gobernuari, Parlamentuari
eta beste erakunde batzuei dagokienez.

ESPARRU INSTITUZIONALA

1. **Antzerkiaren Mundu Eguna** ospatzea. Adierazpen instituzionala.
2. **Lankidetzaren sareak** ezartzea ingurunearekin, maila desberdinetan.
3. Arte eszenikoetako **deialdiak berrikustea**, arloaren premietara egokitzeko.
4. Antzerkia Sustatzeko **Plana aurkeztea** Gobernuan eta Parlamentuan.
5. Kulturarako gutxieneko **inbertsio publikoaren** printzipioa.
6. **Kulturako Plan Estrategikoan** arte eszenikoak sartzea.
7. **Aldian behingo lan bilerak** antolatzea, kulturako agenteekin, koordinazioa hobetzeko (Iruñeko Udala).
8. Deialdien oinarriari buruzko **informazio publikoa ematea**.
9. **NAS eta NAErekin hitzarmenak** berritzea.
10. **INAEM** institutuari Nafarroako arte eszenikoen egoeraren berri ematea.
11. **Artistaren estatutua**. Kode deontologikoak.

ZEHARKAKO ESPARRUA



Ekintza hauek garatzean erakunde desberdinetako agenteek esku hartzen dute.

ZEHARKAKO ESPARRUA

- 1.- **Funts bibliografiko bat** sortzea Nafarroako Liburutegian.
- 2.- **Arte Eszenikoen eta Musikaren Artxiboa** sortzea Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.
- 3.- **Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin lan egitea**, herritarren sektore jakin batzuei zuzendutako ekintzak aberasteko arte eszenikoek duten gaitasunaren berri emateko: gizartea/hezkuntza/ekonomia/osasuna.
- 4.- CEINi, Merkataritza Ganberari, Enplegu Zerbitzuari, SODENari **arloaren premien berri ematea**.
- 5.-**Erreferentziazko langileak identifikatzea**, arloari aholkularitza emateko administrazioko alor desberdinen gainean (Ogasuna, BEZa...).
- 6.- **Nafarroako Gobernuko departamentuen arteko jarraipen batzordea eratzea**. Kultura eta arloa izango dira liderrak, eta gogoetabide komuna sortuko dute.

PRESTAKUNTZA ESPARRUA



Sortzaileen, enpresen eta kudeatzaileen prestakuntza beharrei dagokienez.

PRESTAKUNTZAREN ESPARRUA



1. **Berariazko edukiak dituzten mintzalekuak** sortzea, arloko agenteentzat:
 - a. Ikuskizunak aurkeztea.
 - b. Txikiaren, arriskukoaren, bideoaren, dantzaren topaketa, irisgarritasuna eta aniztasuna sustatzeko.
 - c. Mapaketa. Guneen sailkapena. Arloaren sailkapena (amateurra/profesionala).
2. **Antzerkiari buruzko jarduerak eta unitate didaktikoak** egitea, heziketako zerbitzuen gidan. *Nafarroa sormen lurraldea. Nafarroa hezkuntza lurraldea.*
- 3.- NAE, NAS eta beste erakunde batzuekin, **sormenezko gaitasunak hobetzea.** Hizkuntza dramatikoak eta beste batzuk hobetzeko ikastaroak.

MERKATUAREN ESPARRUA



Ekoizpen artistikoak merkaturatzeari eta arlo profesionala bultzatzeari dagokionez.

MERKATUAREN ESPARRUA

1. Inguruko **azokekin itunak egitea**, Nafarroako antzerkia bultzatu eta aurkezteko.
2. **MERKATUA** sortzea, arteen azoka Nafarroan.
3. **Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua** sortzea.
4. **Gayarre Antzokiarekin** lankidetzan aritzea, NASEko guneekin konpartitutako bira bat egiteko aukera emanaz irabazleari.
5. Antzerkiaren jarduerari buruzko datuak **aztertzea aldian behin**, joerak detektatzeko eta ondoren erabakiak hartzeko. Azterlan horien zabalkundea egitea.
5. **Arloaren katalogo digitala**, kudeatzaileentzako datu erabilgarriekin.
6. **Zuzendaritza artistikoak** kontratatzea Nafarroako Gobernuaren programetarako.
7. **Kultura agenda** sustatzea, prentsa ohar ofiziala aldian behin kaleratuta.